


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

Saiakera euskal itzulpengintzan: erradiografia bat

IKASLEA: Olatz Esteban Ezkati

GRADUA: Itzulpengintza eta Interpretazioa

IKASTURTEA: 2019/2020

TUTOREA: Isabel Etxeberria Ramirez

SAILA: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

Laburpena

Gradu Amaierako Lan honetan, euskal itzulpengintzan saiakerak egin duen ibilbidea aztertu dugu. Izenburuak dioen moduan, jardun horren erradiografia osatu dugu, lehen itzulpena argitaratu zenetik gaur egunera arte. Erradiografia hori osatzeko, hainbat parametro zehaztu ditugu eta horretarako erreferente izan ditugu Manu Lopez Gaseniren (2009) *Euskal itzulpenen azterketa eta inbentarioa (1976-2008)* ikerketa eta Iñigo Satrustegiren Gradu Amaierako Lana (2019).

Lan horiek izan ditugu abiapuntutzat garai horretako euskal itzulpengintza osoa aztertu dutelako. Saiakera itzulpena ere sistema horren parte denez, lotura zuzena du haien azterketarekin. Ildo horri jarraituz, aztergai izan ditugu argitaratu den lanen kopurua, jatorrizko hizkuntzak, jatorrizko herrialdeak, jatorrizko testuen garaiak, egileak eta itzultzaileak. Haratago joanda, egileak eta itzultzaileak genero faktorearen arabera ere aztertu ditugu.

Gainera, jarduna bere osotasunean aztertzeaz gain, sakonago ikertu ditugu Pentsamenduaren Klasikoak bilduma, gainerako bilduma handiak eta bilduma horietatik kanpo egin diren argitalpenak. Horrela, erradiografia osoa izateaz gain, kasu bakoitzaren erradiografia xehea ere egin ahal izan dugu.

Metodologia kuantitatiboa erabili dugu lanerako eta Nor da Nor datu-basea izan da gure iturri nagusia. Bertatik datuak bildu eta behin betiko zerrenda osatu dugu. Ondoren, datu horiek parametro ezberdinen arabera sailkatu ditugu. Aurretik aipaturiko parametroak izan dira horiek.

Parametro horietatik jatorrizko hizkuntzak, herrialdeak eta garaiak Gaseniren eta Satrustegiren lanekin alderatu ditugu, kontrastatu ahal izateko ea sistema osoan ematen diren joerak mantentzen diren saiakera itzulpenean. Gainerako parametroak zehatzagoak direnez, bere horretan aztertu ditugu. Parametro guztiak aztertzerako orduan, datuek ematen diguten informazioaren analisia egin dugu, eta hortik atera ditugun ondorioak azaldu ditugu amaieran. Horrela, saiakera itzulpenaren erradiografia osatua lortu dugu.

1. AURKIBIDEA

Laburpena.....	1
1. AURKIBIDEA.....	2
2. GRAFIKOEN ETA TAULEN AURKIBIDEA.....	3
3. SARRERA.....	4
4. AZTERLANAREN AURREKARIAK.....	6
4.1. Manu Lopez Gaseni	6
4.2. Iñigo Satrustegi.....	7
5. METODOLOGIA	8
6. DATUEN ANALISIA.....	11
6.1. Itzulpenen argitaratze data.....	11
6.2. Jatorrizko hizkuntzak	13
6.3. Jatorrizko herrialdeak	14
6.4. Jatorrizko testuen argitalpen garaia.....	16
6.5. Jatorrizko testuen egileak	17
6.6. Itzultzaileak.....	19
6.7. Egile eta itzultzaileak genero irizpideen arabera	20
6.8. Pentsamenduaren Klasikoak bildumatik argitalpen solteetara	24
6.8.1 Pentsamenduaren Klasikoak	24
6.8.2 Beste bildumak: Gaiak, Elhuyar eta EHUren ekimenak.....	26
6.8.3 Bilduma handietatik at argitaratu diren lanak	27
7. ONDORIOAK	33
8. BIBLIOGRAFIA	37
9. ERANSKINA: saiakera lanen taula osorik	39

2. GRAFIKOEN ETA TAULEN AURKIBIDEA

Grafikoak:

1.Grafikoa: Argitalpen kopuruak urteka.....	11
2.Grafikoa: Argitalpenak urteka, Pentsamenduaren Klasikoak bildumaren arabera	13
3. Grafikoa: Jatorrizko hizkuntzak	13
4.Grafikoa: Idazle kopuruak generoaren arabera	21
5.Grafikoa: Itzultzaile kopuruak generoaren arabera	23
6.Grafikoa: Bilduma handietatik kanpoko argitalpen kopuruak urteka	28

Taulak:

1. Taula: Jatorrizko hizkuntza Gaseni eta Satrustegi	14
2. Taula: Jatorrizko herrialdeak	15
3. Taula: Jatorrizko lanen argitalpen garaia.....	16
4. Taula: Jatorrizko garaiak Satrustegi eta Gaseni	17
5. Taula: Gehien itzuli diren egileak	18
6. Taula: Gehien itzuli duten itzultzaileak	20
7. Taula: Pentsamenduaren Klasikoak; jatorrizkoen argitalpen garaia	25
8. Taula: Argitaletxeen eta fundazioen argitalpen kopuruak.....	30
9. Taula: Argitaletxeak; jatorrizkoen argitalpen garaia	31

3. SARRERA

Literatur tradizioak hiru genero izan ditu ardatz; narrazioa, poesia eta antzerkia, baina badira muga horietatik at dauden literatur testuak ere. Hain zuzen ere, bazterrekoagoa izan den genero bat izango da gure lanaren ardatza: saiakera edo entsegua.

Saiakera literatur generotzat hartzen bada ere, ez da erraza definizio hertsia ematea. Kontzeptu oso likidoa da, narrazioetik zein kazetaritza testuetatik gertu egon daitekeena aldi berean. *Literaturaren Terminoen Hiztegiak* hainbat zertzelada ematen dizkigu. Saiakera ez da fikziozko lana eta gehienetan gogoetaldiekin lotu ohi den arren, literariotasunak eta estetikak garrantzi handia du. Hots, egitura finkaturik eta mugarik ez duen literatur generoa da.

Lan honetan, askorentzat hain ezaguna ez den literatur genero hau izango dugu hizpide. Helburua izango da saiakera lanak aztertzea, baina ez edozein lan, erdaretan idatzi eta euskaratuak izan diren entseguak baizik. Saiakera euskaratzeko jarduna nolakoa izan den ulertzea da gure asmoa eta, horretarako, euskaratu diren lanen azterketa egingo dugu; zenbat itzuli den, zer itzuli den eta nork itzuli duen argitzeko.

Mendebaldeko kulturaren, XVI. mendean sortu zen *entsegu* terminoa, Montaigneren *Les Essais (Entseiuak)* lanaren eskutik. Frantziar humanismoaren lan gorena izateaz gain, gogoeta moduko idazmolde horren eredu bilakatu zen. Ezin ahaztu, ordea, lehenago ere asko landu zela idazkera hori, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Euskal literaturan, orain gutxi hasi da lantzen literatur genero hau. *Literaturaren Terminoen Hiztegiak* jasotzen duenaren arabera, J. Etxepareren *Buruxkak* (1910) da euskaraz idatzi zen lehen saiakera. Gerra ostean, izan ziren hainbat saiakeragile entzutetsu, tartean, Jokin Zaitegi, Orixe, Jon Mirande, Txillardegia edota Koldo Mitxelena. Azken bi horiek ekarri zuten «modernizazioa, dotorezia eta aberastasuna». Gaur egun, asko eta asko dira saiakera idazten dihardutenak.

Esan dugu saiakera ez dela literatur generoen artean erdigunean kokatzen, eta euskal literatur sistema ez da salbuespena. Joan Mari Torrealdaik euskal liburugintzaren azterketa xehea egin du hainbat urtez, eta 2017ko azken azterketaren arabera (2020), literatur generoen artean % 15,1 da miszelanea, kronika edo saioa. Zifra horretan saioak zenbat diren ezin jakin. Portzentaje oso altua ez izan arren, aurreko urteetan baino

altuxeagoa bada; % 13,8 izan zen 2016an, eta 2015ean % 12,5. Gorakako joera hartu du, beraz.

Euskal literatur sisteman zein toki hartu duen saiakerak ikusi dugu, baina geure kasuan, euskarara ekarri diren saiakeretan jarriko dugu fokua, ez euskaraz sortu direnetan. Saiakeraren itzulpen sistema ulertzeko baina, beharrezkoa da itzulpen sistema bere osotasunean ulertzea, eta baita literatur sistema ere.

Itamar Even-Zohar israeldarra ikertzaile erik esanguratsuenetakoa bat da kulturaren eta itzulpengintzaren arloan. Besteak beste, bere Polisistemen Teoriagatik egin da ezagun. Teoria honetan Even-Zoharrek defendatzen du kultur fenomenoak sistema gisa ulertu behar direla, ez direla izaki isolatu eta estatikoak. Sistema bakoitzak dituen diziplina edo azpisistemak ere guztiz dinamikoak dira, eta elkarreragin etengabe daude.

Even-Zoharrentzat literatura itzulua ere azpisistema horietako bat da, eta gainerakoei eragiten die etengabe. Hots, ez da soilik itzulpen sistemaren azpisistema bat, literatur sistema osoaren azpisistema bat baizik, eta zuzenean eragiten dio sistema osoari: «To say that translated literature maintains a central position in the literary polysystem means that it participates actively in shaping the center of the polysystem» (Even-Zohar, 1990). Horregatik, saiakera itzulpena euskal literatur sistema osoaren baitan ulertu behar dugu.

Even-Zoharrek ere aipatzen du literatura gazteen kasuan, itzulpenak pisu handia hartzen duela, bertako produkzioa heltzen ez den tokietara heltzeko aukera ematen baitu. Euskal literatura gaztea den heinean, ideia hori aplikagarria litzateke guretzat. Izan ere, Torrealdairen (2020) azken ikerketaren arabera, 2017an argitaratu ziren literatur lan guztien % 35,5 itzulpenak izan ziren; eta 2000. urtetik 2017ra, urtero batez beste % 32,4 izan dira itzulpenak. Hortaz, euskal literaturan argitaratzen diren lanen herena baino gehiago itzulpenak dira. Hau da, itzulpenak, batzuetan ohartu ez arren, zentralitate nahikotxo du gure literatur sisteman.

Eta sistema horren barruan, zer nolako pisua du saiakera itzulpenak? Bada, 1976 eta 2008 bitartean argitaratu ziren itzulpenetan, % 17 izan ziren saiakerak, Manu Lopez Gasenik (2009) bere ikergaiari jasotzen duenez. Ondorengo urteetan, alabaina, igo egin da proportzio hori: 2008 eta 2018 bitartean argitaraturiko itzulpen lanen artean % 23,07 dira saiakerak (Satrustegi, 2019). Ikusten dugu, beraz, literatura itzulian saiakerak pisu

handiagoa duela literatura sistema osoan baino, eta, gainera, goranzko joera izan duela azken urteetan.

Gure helburua izango da lan honetan, datu horiek xeheago aztertzea. Aztertu nahi dugu ea zenbat saiakera itzuli den euskarara gaur egun arte, eta ea nolakoa izan den bilakaera hori. Gainera, gure asmoa da zer itzuli den ere jorratzea; hau da, zein hizkuntzatatik itzuli diren lanak, zein herrialdetakoak eta zein garaitakoak izan diren eta nork idatziak. Ahaztu gabe, lan horiek nork itzuli dituen, noski. Azken finean, euskarazko saiakera itzulpenaren erradiografia zehatz bat egitea dugu xede.

Izan ere, datuek erakutsi digute saiakerak gora egin duela azken hamabi urteetan, eta ikusten dugu euskal irakurleen artean zabaldu dela pertzepzio hori. Azken aldian, asko entzun da euskarazko saiakerak presentzia hartu duela, eta inoiz baino indartsuago dagoela. Miren Rubio Jakineko kideak iritzi du «pentsamenduari lotutako euskarazko gero eta liburu gehiago» daudela, baina ez du uste *boom* bat izan denik, «normaltasunerantz gerturatzen» ari dela baizik, Itziar Ugarteren artikuluan jasotzen denez (2019). Alabaina, izan al da azkenaldian saiakeraren *boom*ik? Ala lanen irisgarritasunak zabaldu du pertzepzio hori? Galdera hauei erantzun bat ematen saiatuko gara gure lanean.

4. AZTERLANAREN AURREKARIAK

4.1. Manu Lopez Gaseni: Euskal Itzulpenen Inbentarioa eta Azterketa (1976-2008)

Euskal Itzultzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) 2008an Manu Lopez Gaseniri enkargatu zion 1976tik 2008ra egin ziren euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa egin zezan. Lan horren helburua zen ordura arte itzulpengintzan eginiko lana aztertzea eta etorkizunean hartu beharreko bidea finkatzea.

Tarte hori hartu zuten kontuan 70eko hamarkadan hasi baitziren euskal itzulpenak sistematikoki argitaratzen. Aztertu ziren itzulgaien artean, helduentzako literatur lanak soilik daude; hau da, haur eta gazte literatura ez sartzea erabaki zen. Era berean, azterketatik kanpo geratu ziren euskara ikasteko eginiko itzulpenak, egile askoren lanen antologiak eta egilerik ez duten ipuin bildumak.

Lopez Gasenik 2009ko *Senex* aldizkarian publikatu zuen bere lana, eta azterketa eta inbentarioa azaltzeaz gain, etorkizunerako itzulgaien proposamenak ere egin zituen.

4.2. Iñigo Satrustegi: Euskal Itzulpenen Azterketa Kuantitatiboa eta Inbentarioa (2008-2018)

Iñigo Satrustegik Gradu Amaierako Lanean Gaseniren lekukoa hartu eta jarraipena eman zion euskal itzulpenen azterketari 2019an. Hain zuzen ere, 2008 eta 2018 bitartean argitaratu ziren euskal itzulpenen azterketa kuantitatiboa eta inbentarioa egin zuen. Halaber, Satrustegik ez zuen azterketa kualitatiborik egin bere lanean, eta Gasenik jarraitu zituen parametroez gain, berri batzuk ere ezarri zituen.

Lan honen helburua izan zen aurreko azterketarekin alderaketa bat egitea eta aztertzea ea hurrengo urteetan joera bertsuak mantendu ziren edo aldaketarik izan zen euskal itzulpenean.

Gure lanerako behar beharrezkoak izan dira bai Gaseniren baita Satrustegiren azterketak ere. Izan ere, oinarri gisa hartu ditugu haien lanetan erabili dituzten parametroak gure lana zehazteko (aurrerago azalduko ditugu parametro horiek), eta, horrela, posible izan da alderaketak egitea saiakera itzulpenaren eta euskal itzulpenaren artean.

5. METODOLOGIA

Esan bezala, lan honek oinarri gisa izan ditu Manu Lopez Gaseniren itzulpenen inbentarioan eta Iñigo Satrustegiren Gradu Amaierako Lanean erabilitako metodologia. Haien ikerketetan ezarritako irizpideei jarraitu diegu (aurrerago zehaztuko ditugu), aurretiko erreferentzia bat izatearren; eta Satrustegiren kasuan bezala, generoaren faktorea ere txertatu dugu.

Datuak ateratzerako orduan, EIZIEn Nor da Nor datu-basea izan da gure iturri nagusia. Lehenik eta behin, bilaketa orokorra egin genuen *itzulpenak* atalean. Xede hizkuntza euskara jarrita eta testu mota saiakera hautatuta lortu genuen lehen emaitza; 357 liburu eta bestelako 28 lan. Lehen erabakia izan zen soilik liburuak izango genituela ikergai lan honetan. Izan ere, *bestelakoak* atalean aldizkarietan zein web orrietan argitaratutako testuak biltzen dira, eta aztergai interesgarriak badira ere, azterketa mugatzearen alde egin genuen. Bazter uzteko arrazoiaren artean, bestelako lanen kopuru txikia egongo litzateke. Atal honetan 28 testu jasotzen dira 1984tik 2019ra bitartekoak, eta zaila suertatuko litzateke kopuru murriz horretatik analisi sakon bat egin eta datu esanguratsuak ateratzea. Hala ere, bidea irekita uzten dugu etorkizunean norbaitek azter ditzan.

Garaiari dagokionez, behetik ez genuen urteen mugarik jarri nahi izan, eta argitaratzen hasi zirenetik gaurdainoko lan guztiak hartu ditugu kontuan. Azken finean, lan kopurua maneiagarria iruditu zaigu horrelako lan baterako, eta, horregatik, ez dugu mugatzeko beharrik ikusi. Alabaina, goitik bai adostu genuen muga bat ezartzea: 2019ra arteko lanak hartu ditugu kontuan. Hots, 2020ko obren zerrenda itxi gabe dago oraindik ere, eta, beraz, lanean islatutako datuak ez lirateke errealak izango.

Nor da Nor-ek emaitzak RTF formatuan jaisteko aukera eskaintzen du, kalkulu orri batean, eta modu horretan errazagoa da bilaketak egitea. Lehenengo datuak bilduta, iragazkia pasatzea izan zen hurrengo pausoa. Ohartu ginen zerrenda horretan zeuden hainbat lan hurbilago zeudela narraziotik edota gazte literaturatik¹, eta zerrendatik

¹ Horren adibide dira, besteak beste, Eduardo Galianoren *Emakumeak* eta Tahar Ben Jellounen *Arrazismoa nire alabari azaldua*. Lehena, hainbat emakumeren kontakizun bilduma da, eta Txalaparta argitaletxeak berak narratiba lan gisa aurkezten du. Bigarrena, berriz, Axuri Beltza haur eta gazte literaturako bildumaren barruan dago. Gainerako lanak ere bide bertsutik doaz.

kentzea adostu genuen. Hala ere, literatur genero batetik besterako muga oso lausoa da, oso kontzeptu likidoak baitira, eta ez da erraza bereizketa egitea.

Bestalde, ohartu ginen zenbait saiakera lan ez zirela datu-basean ageri edota beste genero baten barruan sailkaturik zeudela. Zalantza horiek argitzeko, datu-basearen arduradun den Bego Montoriorekin jarri ginen harremanetan, eta horrela lortu genuen behin betiko zerrenda osatzea: euskarara itzultitako 345 saiakerak biltzen dira bertan. Betiere, gure irizpideen baitan zehaztuak.

Lanen zerrenda itxita, datuei zukua ateratzea izan da hurrengo egitekoa. Alde batetik, datu orokorrak bildu ditugu, osotasunari eragiten diotenak. Aurretik aipatu bezala, Lopez Gasenik eta Satrustegik erabilitako irizpideei jarraitu diegu, guk ateratako emaitzek testuinguru bat eta aurretiazko erreferentziak izan zitzaizten. Izan ere, saiakeraren itzulpena ez da praktika isolatu bat, euskarazko itzulpen sistemaren barruan dago –hots, euskal literaturaren sistemaren barruan– eta elkar eragina etengabea da gainerako praktikekin. Horregatik, beharrezkoa iruditu zaigu lotura horiek egitea.

Analisia egiterakoan kontuan izan ditugun irizpideak honako hauek izan dira:

- Itzulpenen argitaratze data eta itzulpenen kopuruak
- Jatorrizko hizkuntzak
- Jatorrizko herrialdeak
- Jatorrizkoen argitalpen data
- Itzultzaileak
- Idazleak
- Itzultzaile eta idazleen generoa

Itzultzaileak eta idazleak aztertzerakoan, garrantzitsua iruditu zaigu generoan arreta jartzea, eta behatzea ea bilakaerarik izan den saiakerak itzultzen hasi zirenetik gaur egunera arte generoaren faktorea kontuan hartuta. Hau da, ea garaian garai zenbat idazle eta itzultzaile izan diren gizonezkoak eta zenbat emakumezkoak.

Beste aldetik, datu zehatzagoak ere aztertu ditugu. Bi kasutan sakondu dugu hain zuzen ere; Pentsamenduaren Klasikoak bilduman eta bilduma handietatik kanpo egin diren argitalpenetan. Halaber, Gaiak argialetxearen, Elhuyarren eta EHUren argitalpenak ere izango ditugu hizpide. Pentsamenduaren Klasikoak da euskarara itzultitako saiakera

gehien biltzen dituen bilduma. Ehundik gora lan biltzen ditu bilduma honek, saiakerak guztiak ere, eta pisu handia du itzulpen sistema horren barnean. Hori dela eta, aparteko kasu gisa aztertzeko beharra sentitu dugu. Era berean, bilduma handietatik at, saiakerak argitaratzeko joera ere oso aztergai interesgarria iruditu zaigu.

Zerrenda osotik datu zehatzak ateratzea ez da lan makala izan. Kalkulu orriak eskaintzen dituen bilaketa tresnei esker, lortu dugu nahi genituen datuak bildu, eta behin eta berriz kontrastatzea zuzenak zirela ziur egon arte. Kasu askotan, ordea, ez da hain erraza izan, datu batzuk falta baitziren. Halakoetan, bilaketak egin behar izan ditugu hainbat baliabide erabiliz, baina kasu batzuetan zehaztu gabeko datuak ditugu.


Jatorrizko testuen herrialdeen kasuan, esaterako, datu-basean asko eta asko ez ziren ageri. Ageri zirenen artean, sailkapena egitea ez da zaila izan bilatzaileari esker, baina beste lanen informazioa eskuratzea neketsuagoa izan da. Saiatu gara jatorrizko testua topatzen eta non argitaratu zen egiaztatzen, baina kasu batzuetan ez da posible izan.

Datuak tauletan eta zerrendetan bildu ditugu, aipaturiko irizpideen arabera sailkatuak. Ondoren, datu horiek grafiko edota tauletara iraultzea izan da egitekoa. Horrela, bereziki urteen bilakaeren kasuan, begi kolpe batez argi eta garbi antzeman daiteke informazio hori guztia. Grafiko eta taula horiek lanean txertaturik joango dira, baina horiez haratago, idatzizko azalpenak ere emango ditugu ahalik eta zehatzen aletzeko informazio guztia. Izan ere, baliteke kasu batzuetan taulak mugatuak izatea, luzera kontuak medio.

6. DATUEN ANALISIA

6.1. Itzulpenen argitaratze data

Bildu ditugun datuen arabera, guztira 345 saiakera itzuli dira euskarara historian zehar. Jasorik dagoen lehen itzulpen lana 1913koa da², ale bakan bat, eta 2019koak dira azken lanak, 2020an orain arte argitaratu diren lanak ez baititugu bildu. Lan guztiak, hortaz, XX. eta XXI. mendeetan argitaratuak izan dira.



1. Grafikoa: Argitalpen kopuruak urteka

Saiakera itzulpenen argitalpena nahiko jarduera irregularra izan da. Lehen argitalpena 1913an argitaratu zenetik, 70eko hamarkadara egin behar da salto hurrengo argitalpenarekin topo egiteko. Hots, ale solte horren salbuespenarekin, esan dezakegu saiakeraren itzulpena 70eko hamarkadan hasi zela, baina 90eko hamarkadan eman zitzaiola jarraipen sistematikoa jardun horri.

Sabin Irizar idazlea izan zen saiakera lan bat euskaratzen lehena, 1913an. Irizarren ekarpenaren ostean, 11 lan itzuli zituzten 70eko eta 80ko hamarkadetan; Txillardegiri zor dizkiogu lehen horiek, eta pixkanaka sortzen ari ziren argitaletxeen ekimenei

² Lehenago ere ekarri izan dira hainbat erlijio-testu euskarara, aszetika-tratatuak esaterako, eta horiek nonbait kokatu beharko balira, ziurrenik saiakeratik hurbil egongo lirateke. Alabaina, guk Nor da Nor datu-basea erabili dugu iturri nagusitzat, eta bertan jasotzen diren lanak aztertu ditugu. Beraz, 1913koa hartzen dugu lehen itzulpentzat.

ondorengo asko, adibidez, Susari eta Jakini. Koska bat gora egin zuen argitalpenak 90eko hamarkadaren lehen urte horretan, zazpi lanekin; hor hasi baitziren hainbat elkarte eta erakunde testuak euskaratzen, tartean Elhuyar eta Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).


Ordutik aurrera nabarmen hazi zen argitalpen kopurua, eta goia jo zuen Pentsamenduaren Klasikoak bilduma argitaratzen hasi zirenean (1992-2009). Grafikoan ikus daitekeenez, bi arotan pilatzen dira itzulpen gehien. Lehena, 1993 eta 1997 artekoa; 84 saiakera itzuli eta argitaratu ziren bost urtean. Eta bigarrena, Pentsamenduaren Klasikoak bildumaren azken urteetan, 2005 eta 2009 bitartean, non 94 lan argitaratu baitziren.

Pentsamenduaren Klasikoak bilduma itxi zenean, beherakada nabarmena izan zen argitalpen kopuruan; 25etik 9ra jaitsi zen urte batetik bestera. Halaber, zertxobait igo zen hurrengo bi urteetan. Azken zazpi urteetan, apalago eutsi dio argitalpen kopuruak, baina badirudi apaltasun horretan egonkortze aldera doala.

Aipatu dugu Pentsamenduaren Klasikoak bilduma dela saiakera bildumarik esanguratsuen, baina ez da bakarra. Argitaratu diren 345 lanetatik 281 bilduma handi baten parte edo erakunde batek argitaratuak dira; hau da, argitalpenen % 81,44. Datu esanguratsua da inondik inora ere, eta argi uzten du bilduma horiek izan duten eginkizun garrantzitsua. Bilduma horien artean daude Gaiak argitaletxearen hiru bilduma (Pentsamendu Garaikidea; Zientzia eta Natura; eta Historia eta Gizartea), EHUren bi bilduma; (ZIO eta Limes) eta baita Elhuyarren argitalpenak ere (Islada eta Z izpiak).

Alabaina, Pentsamenduaren Klasikoak da lan gehien biltzen dituen: 131³. Hori horrela, bilduma hori abian izan zen urteetan nabarmen igotzen da argitalpen kopurua gainerako urteekin alderatuz gero, eta desberdintasun handiak sortzen dira. Horregatik, proba egin nahi izan dugu Pentsamenduaren Klasikoak bilduma kenduta zer nolako grafikoa geldituko litzatekeen.


³ Nor da Nor datu-basean, Pentsamenduaren Klasikoak bildumaren barruan XX. mendekoak diren lanak beste izen baten pean ageri dira: XX. mendeko ondarea. Halaber, Pentsamenduaren Klasikoak argitaletxeak berak ez du halako bereizketarik egiten, eta, beraz, guk ere ez dugu egin.



2.Grafikoa: Argitalpenak urteka, Pentsamenduaren Klasikoak bildumaren arabera

Nabarmena da aldea grafiko batetik bestera. Pentsamenduaren Klasikoak bildumarik gabe, erregularragoa da bilakaera, ez baitago halako jauzi nabarmenik urte batetik bestera. Gainera, arorik oparoena ere aldatu egiten da. Aurrekoan, 2005-2009 artean pilatzen ziren itzulpen gehien; kasu honetan, berriz, 2011 da gehien argitaratu den urtea, 15 lanekin, eta 2007 eta 2012 bitartean gehien argitaratu den aldia. Adibide honekin argi ikus daiteke zer nolako pisua izan duen Pentsamenduaren Klasikoak bildumak, oro har, euskal itzulpengintzan, eta, bereziki, saiakeraren itzulpenean; ehunka laneko ekarpena egin baitio euskal irakurleari.

6.2. Jatorrizko hizkuntzak



3. Grafikoa: Jatorrizko hizkuntzak

Ingelesa da nabarmen jatorrizko hizkuntzarik ohikoena. Ia lanen erdiak (% 44,92) itzuli dira hizkuntza horretatik; halaber, ez da harrizkoa, ingelesarena baita literatur sistemarik indartsuena mundu mailan. Atzetik ditu frantsesa (% 19,42) eta alemana (% 12,46), eta deigarria da gaztelaniaren laugarren postua (% 6,66), % 10era ere iristen ez dela. Mendebaldeko pentsamenduan pisu handia izan dute filosofo eta zientzialari alemanek, eta hortik etor liteke hizkuntza horren joera altua. Halaber, gaztelaniak, beste genero batzuetan ez bezala, saiakeraren kasuan ez du pisu handiegirik izan.

Lopez Gaseni eta Satrustegiren datuekin alderatuta ikusten da aldaketa hori.

	LOPEZ GASENI	SATRUSTEGI
Ingelesa	% 32	% 35,19
Frantsesa	% 18	% 19,04
Gaztelania	% 16,7	% 15,57
Alemana	% 8,4	% 7,5
Italiera	% 5,3	% 4,80
Latina	% 3	-
Errusiera	% 2,9	% 2,5
Katalana	-	% 2,88
Besteak	% 13,7	% 12,49

1. Taula: Jatorrizko hizkuntza Gaseni eta Satrustegi

Bien ikerketetan ageri da gaztelania hirugarren tokian, eta alemana laugarrenean, literatur genero guztiak hartzen baitituzte ikergai. Bestetik, deigarria da gure azterketan latinaren (% 5,50) eta grekoaren (% 4,92) erabilera altua. Honetan ere eragina dute antzinako filosofo klasikoek, handia baita haien presentzia saiakera lanetan. Gaseniren lanean ere ageri da latina, neurri txikiagoan bada ere (% 3), baina grekoak ez du ia presentziarik ez Gaseniren lanean ezta Satrustegirenean ere. Horren ondorio zuzena da, italiera zazpigarren hizkuntza izatea, soilik % 2,02rekin. Eta aipamen berezia ere hebreeraz dauden hiru lan horiei, ez baita itzulpenak egiteko ohiko hizkuntza izaten.

Grafikoan ageri den *Besteak* atal horretan sartzen dira errusiera, galegoa eta daniera bi lanekin bakoitza; eta nederlandera, poloniera, portugesa eta txinera lan batekin bakoitza. Azkenik, bada lan bat hizkuntza zehazterik izan ez duguna: *Atlantida: egia ala mitoa?*

6.3. Jatorrizko herrialdeak

JATORRIZKO HERRIALDEAK				
Herrialdea	Kopurua	%	% MLG	% IS
AEB	74	21,44	13	13,46
Erresuma Batua	67	19,42	11	10,77

Frantzia	61	17,68	12	15,77
Alemania	46	13,33	6,5	4,24
Espainia	17	4,92	5,6	5,77
Grezia	17	4,92	-	-
Italia	10	2,89	6	4,04
Euskal Herria	8	2,31	7,3	5,34
Antzinako Erroma	8	2,31	-	-
Austria	5	1,44	-	1,35
Herbehereak	5	1,44	-	-
Katalunia	4	1,15	-	3,27
Suitza	4	1,15	-	-
Besteak	19	5,50	38,6	21,15

2. Taula: Jatorrizko herrialdeak

Jatorrizko herrialdeek bat egiten dute ia erabat jatorrizko hizkuntzen herrialdeekin. Jatorrizko lan gehienak AEBn (% 21,44) eta Erresuma Batuan (% 19,42) argitaratu ziren, pentsatzekoa den moduan, ingelesez. Hirugarren tokian Frantzia (% 17,68) dago eta, jarraian, Alemania (% 13,33). Lopez Gaseniren lanean ere AEB da lan gehien argitaratu diren herrialdea; Satrustegiren lanean, berriz, Frantzia dago lehen postu horretan.

Bestalde, Alemaniak presentzia nabarmena du berriro ere gure ikerketan, eta beste lanekin alderatuta, diferentzia nabarmena da, sei eta bederatzita puntukoa hurrenez hurren. Espainia % 5etik behera geratzen da (% 4,92) saiakeraren argitalpenen kasuan, gainerako lanetan baina baxuxeago. Baita Euskal Herria ere, soilik % 2,31rekin.

Datu esanguratsua da era berean Antzinako Erromak presentzia izatea taula honetan. Zortzi lan argitaratu ziren bertan (% 2,31), Euskal Herriaren pare, esaterako. Datu hau ulertzeko, kontuan izan behar da Kristo aurreko hainbat filosofok idatzirik lan batzuk daudela euskarara itzulirik saiakeren artean. Hortik ere Grezian hainbeste lan argitaratu izana (% 4,92). Gainerako genero guztiak aztertu dituzten lanetan presentzia eskasa dute bi herrialde horiek beste herrialdeekin alderatuta.

Besteak atal horretan beste hamalau herrialde sartzen dira. Hiru lan argitaratu dira Kanadan; bina lan Danimarkan, Australian eta Errusian; eta lan bana Irlandan, Galizian, Aljerian, Ukrainan, Txinan, Argentinan, Txekian, Belgikan, Brasilen eta Polonian. Oro har, 27 herrialdetan argitaratu dira euskarara ekarriak izan diren saiakera lanak.

6.4. Jatorrizko testuen argitalpen garaia

JATORRIZKOEN ARGITALPEN GARAIA				
Garaia	Kopurua		%	
XX. mende aurrekoak	96	Kristo aurrea	18	27, 90
		I	5	
		VI	1	
		XII	1	
		XIII	2	
		XIV	1	
		XVI	11	
		XVII	10	
		XVIII	22	
		XIX	25	
XX. mendekoak	167	00	4	48, 54
		10	6	
		20	10	
		30	15	
		40	16	
		50	14	
		60	17	
		70	20	
		80	32	
		90	33	
XXI. mendekoak	48		13, 95	
Datarik gabeak	34		7, 84	

3. Taula: Jatorrizko lanen argitalpen garaia

Euskarara ekarri diren saiakera lanak garai ugari eta ezberdinetakoak dira. Mendeak kontuan izanda, XX. mendekoak dira ia lanen erdiak (% 48,40) eta XXI. mendekoak 48 lan (% 13,91). Hortaz, esan dezakegu lan garaikideak direla itzuli diren gehienak, hamarretik sei hain zuzen ere (% 62,31). Alabaina, ia heren bat dira (% 27,82) XX. mendea baino lehenago argitaratuak izan zirenak.

XX. mende aurreko blokeari dagokionez, argitalpen mendeak ez dira jarraituak; mende batzuetako lanak itzuli dira, beste batzuetakoak ordea ez. Bloke horren barruan, lanik gehienak XVIII. eta XIX. mendeetakoak dira, garai haietako 22 eta 25 lan itzuli dira euskarara hurrenez hurren. Ez da harritzekoa ordukoak izatea gehienak, Ilustrazioaren eta Industrializazioaren garaiak izan baitziren horiek, eta, horrekin batera, Mendebaldeko gizartearen oinarri izan diren pentsalari askorenak. Deigarria da, bestalde, Kristo aurreko 18 saiakera lan ekarri izana euskarara.

Aipatu dugu XX. mendekoak direla euskaratu diren lan gehienak. Haratago joanda eta hamarkadaka aztertuta, behetik gorako bilakaera progresiboa izan dela ikus daiteke. Mende hasierakoak lau lan soilik dira, eta azken hamarkadakoak, berriz, 33. Hamarkadaro ikusten da gorakada, mendearen erdialdean izan ezik, 50eko hamarkadan beherakada izan baitzen; 16tik 14ra jaitsi zen argitalpen kopurua.

Kontuan izanda XX. mendeko lanek mende oso bat hartzen dutela, proportzioan altuagoa litzateke XXI. mendeko lanen kopurua, 19 urte bakarrik sartzen baitira bertan. Hala ere, goizegi litzateke horren azterketa sakona egiteko. Azkenik, badira 34 lan (% 9,85) ezin izan ditugunak jatorrizko garaian kokatu.

	SATRUSTEGI	LOPEZ GASENI
XX. mende aurrekoak	% 11, 35	% 35
XX. mendekoak	% 40, 77	% 61
XXI. mendekoak	% 34,32	% 4
Datarik gabekoak	% 13, 27	-

4. Taula: Jatorrizko garaiak Satrustegi eta Gaseni

Erreferentzia gisa izan ditugun aurreko ikergaietan ere, XX. mendekoak izan dira itzuli diren lan gehienak. Halaber, Gasenirenean 10 puntu altuagoa da garai hartako itzulpen kopurua, eta Satrustegirenean 20 puntutik gorako aldea dago XXI. mendean. Beraz, bada aldea aztertzen ari garen testu motak kontuan izanda.

6.5. Jatorrizko testuen egileak

Lanaren atal honetan jatorrizko testuen egileei erreparatu nahi izan diegu. Aipatu dugu guztira 345 lan azertu ditugula, bada lan horien guztien atzean 267 egile ezberdin daude. Hortaz, nahiko heterogeneoa da egiletza; 78 lan baitira soilik egileren bat errepikatua dutenak. Idazle horien artean badira hiru kasu berezi; hiru lan kolektiboek idatziak izan dira, eta kolektiboaren izenaren pean argitaratuak, kasu: Batzorde ikusezina, Économistes atterrés, eta Presokratikoak. Beraz, ezin dugu zehatz mehatz zehaztu zeintzuk diren kolektibo horien atzean dauden egileak. Hori horrela, 264 izenez osaturiko zerrenda dugu.

Generoaren faktorean aurrerago sakonduko dugun arren, aipatu behar da egile guztien artean 231 direla gizonezkoak eta soilik 33 emakumezkoak⁴; % 12,35, bosten batera ere ez dira heltzen. Hots, genero arrakala izugarria da jatorrizko egileen artean.

EGILEAK	
Egilea	Kopurua
Platon	6
Immanuel Kant	5
Oliver Sacks	5
Aristoteles	4
Noam Chomsky	4
Albert Einstein	4
Stephen Jay Gould	4
John Gribbin	4
Jean Piaget	4
Silvia Federici	3
Angela Davis	3
C. G. Jung	3
Claude Levi-Strauss	3
John Locke	3
Friedrich Nietzsche	3
Montesquieu	3
Miguel de Unamuno	3
Michel de Montagne	3

5. Taula: Gehien itzuli diren egileak

Goiko taulan ikus daitezke egileen artean gehien errepikatzen direnak. Izenak ez dira gehiegitxo errepikatzen, esan bezala, nahiko zabala baita idazleen zerrenda. Hiru dira lau lanetik gora dituztenak euskarara ekarriak: Platon, Immanuel Kant eta Oliver Sacks. Hiru garai oso ezberdinetako egileak; Kristo aurrekoa lehena, XVIII. mendekoa bigarrena, eta erabat garaikidea azkena. Lehen postu horietan, bi filosofo eta neurologo bat; gure gizartearen zutarri izan diren bi arloetako izen nagusietako hiru.

Gainerako egile guztiak ere filosofoak eta zientzialariak ditugu, garai urrun edo gertukoetakoak, baina sona handiko izenak guztiak ere. Tartean badira bi emakume: Angela Davis eta Silvia Federici, aktibista eta teorialari feministak, hiru lanekin biak ala biak. Bide batez, Davis da arraza beltzeko egile bakarra gehien itzuli diren egileen artean. Egile guztiak hartuta, badira gutxi batzuk gehiago; esaterako, Bell Hooks edo Chimamanda Ngozi Adichie.

⁴ Argitu nahiko genuke gizon* eta emakume* kategoriak erabiliko ditugula lanean zehar, beharrezkoa sentitu dugulako emakume gisa gizarteratu direnen papera jardun honetan nolakoa izan den aztertzeke. Halaber, kategoria horiek ez ditugu «egitate biologikora murrizten» (Agirre; Eskisabel, 2019).

6.6. Itzultzaileak

Egileen kasuan ez bezala, itzultzaileen jarduna esku gutxiagotan biltzen da. Saiakera itzultzen ari diren itzultzaileen kopurua askozaz baxuagoa da, egileekin alderaturik. Oro har, 170 itzultzaile aritu dira jardun honetan, hau da, itzultzaile bakoitzak batez beste bi lan itzuli ditu. Kasu batean itzulpena talde batek egin da, AEKk hain zuen ere, eta, hortaz, zifra horretatik kanpo utzi dugu ezin dugulako jakin atzean zenbat lagun aritu diren.

Itzultzaileen artean nahiko dinamika ohikoa da binaka edota taldean lan egitea eta, kasu honetan ere, horrela izan da. Binaka itzuliak izan dira 22 lan, eta bi kide baino gehiagoko taldeetan beste 12 lan; hots, guztira, lanen ia % 10. Oro har, itzulpena nahiko praktika kolektiboa dela esan genezake, baita saiakeraren kasuan ere, 10 lanetik bat elkarlanean itzuli baita.

Itzulpen jardunean emakumeak gehiago dira egiletzan baino; 170 itzultzailetik 55 dira emakumezkoak (% 32,35), heren bat baino gehixeago. Zifra honen barruan guztiak sartzen ditugu, banaka zein taldean aritu direnak. Horrela ikusita, arrakala leundu egiten da zertxobait. Alabaina, lan kopuruan jarriz gero arreta, 345 lanetatik 85 (% 24,63) itzuli dituzte emakumeek (67 emakumeek bakarrik eta 18 gizonekin elkarlanean), eta 243 (% 70,43) gizonek (225 gizonek bakarrik eta 18 emakumeekin elkarlanean). Beste 17 lanek (% 4,92) itzultzaile ezezaguna dute. Hots, emakumeek batez beste 0,24 lan itzuli dituzte eta gizonzkoek 0,7. Beraz, emakume itzultzaileen kopurua esanguratsua bada ere, gizonak gehiago izan dira eta haietako batzuek gehiago itzuli dute nabarmen.

ITZULTZAILEAK		
Itzultzaileak	Kopurua	%
Iñaki Azkune	21	6,08
Joan Ignazio Abrisketa	16	4,63
Alberto Gabikagojeaskoa	14	4,05
Iñaki Iñurrieta	14	4,05
Julen Kaltzada	13	3,76
Xabier Mendiguren Bereziartu	9	2,60
Edorta Agirre	7	2,02
Xabier Kintana	7	2,02
Ibon Uribarri	6	1,73
Danele Sarriugarte	5	1,44
Jaione Alberdi	5	1,44
Josu Zabaleta	5	1,44
Andoni Sarriegi	5	1,44

Juan Garzia	5	1,44
Jose Ramon Etxebarria	5	1,44
Pedro Martin Zabaleta	5	1,44
Inma Errea	4	1,15
Irati Bereau	4	1,15

6. Taula: Gehien itzuli duten itzultzaileak


Itzultzaileen artean alde nabarmena dago batzuetatik besteetara. Lan asko itzuli dituzten gutxi batzuk daude, nahikotxo itzuli dituzten hainbat, eta, gehiengoa, lan bat edo bi itzuli dituztenak. Alde hori argi ikusteko, datu benetan esanguratsu bat: lehen bost itzultzaileek itzuli dute ia lan guztien laurden bat (% 22,57). Oro har, jardun polarizatua bada ere, itzultzaile guztiek ez dute presentzia bera.

Datu hauek ulertzeko, kontuan izan behar da lan honetan bildu diren itzulpenak ez direla lehiaketa bidez esleitu; hau da, argitaletxe edo elkarteek hautatu dituztela itzultzaile horiek, haien irizpideen arabera. Horregatik hauteman daiteke halako alde batetik bestera.

Gehien itzuli dutenak gizonezkoak badira ere, lau emakumeren izenak ageri dira zerrenda horretan, lau eta hiru lanekin. Hots, emakumezkoen presentzia nabarmenagoa da itzultzaileetan idazleetan baino.

6.7. Egile eta itzultzaileak genero irizpideen arabera

Arestian aipatu dugun bezala, lan honetan saiakeraren itzulpen jardunean egon den genero arrakalan sakondu nahi izan dugu. Horretarako, urtez urteko bilakaera aztertu dugu; hau da, ea aldaketarik izan den bai egile eta bai itzultzaileen artean genero irizpideei dagokienez eta garaiaren arabera. Urtez urte aletu dugu zenbat izan diren gizonezkoak praktika horretan eta zenbat emakumezkoak.



4.Grafikoa: Idazle kopuruak generoaren arabera

Begi kolpe batez grafikoa ikusita, argi dago genero arrakala egileetan izugarria izan dela ia urtero, 2013ra heldu arte; hortik aurrera apaldu egiten da aldea, eta 2016tik aurrera irauli. Euskarara emakumezko baten saiakera lan bat lehen aldiz 1993an ekarri zen, lehen itzulpena 1913an izan bazen ere. Hasierako urte horietan itzulpen jarduna apala izan zen, gehienez ere zazpi lan itzuli ziren urte batean, eta, esan bezala, guztiak gizonezkoek idatziak.

Alabaina, 1992an Pentsamenduaren Klasikoak bilduma argitaratzen hasi ziren, eta hor zeharo igo zen argitalpen kopurua, 2009an amaitu zen arte. Garai horretan, sei eta 25 lan artean argitaratzen ziren urtero, kopuru mardula, baina emakumezkoek idatzi zituzten lanak 10 bakarrik izan ziren 18 urteko tarte horretan; 1996 eta 2006 artean, esaterako, bat bera ere ez zen itzuli. Haatik, garai hau sakonago aztertuko dugu aurrerago, Pentsamenduaren Klasikoak bilduma ikustean.

Azken urte hauetan, esan beharra dago joera hori aldatu egin dela. Alde nabarmen hori apaldu egiten da 2011tik aurrera, argitalpen kopurua apaltzearekin batera, eta dagoeneko urtero daude emakumeek idatzitako lanen itzulpenak, bakarrak badira ere.

Aldaketarik esanguratsuena 2016 eta 2019 bitartean gertatu da. Azken lau urte horietan grafikoa irauli egiten da erabat: gehiago dira emakumezkoek idatziriko testuak gizonezkoek idatzirikoak baino. 2016an eta 2017an puntu batekoa da aldea, nahiko bertsu daude, baina 2018an 5 dira emakumezkoen lanak eta bat bera ere ez


gizonezkoenak; eta 2019an, 9 emakumezkoenak eta bakarra gizonezkoena. Zeharo aldatu da joko-zelaia.

Datu horiek, baina, ez dira kasualitatea. Aurrerago ikusiko dugun moduan, azken hamar urteetan bilduma handietatik kanpoko argitalpenek izan dute eginkizun nagusia saiakera itzulpenean, lehenago bilduma handiek izandakoaren aldean. Argitaletxeen hautu kontzientea da zer nolako testuak itzuli nahi dituzten erabakitzea, nork idatziak eta nork itzuliak. Eta horietako batzuek bide berriak zabaltze aldera egin dute

Ez da kasualitatea ezta ere 2016an gertatzea aldaketa hori. Izan ere, alde batetik, urte horretan hasi ziren argitaratzen Elkar eta Jakin argitaletxeak Eskafandra bilduma, pentsalari eta teorialari feministen testuak argitaratzeko xedearekin, hala azaltzen du Lorea Agirre bildumaren zuzendarietako batek Gorka Erostarberen artikuluan (2016): «Euskarari eta feminismoari, biei, eskutik helduta arnasa ematea da gure helburua». Eta bestetik, urte horretan bertan hasi zen Katakarak argitaletxea liburuak argitaratzen. Argitaletxe honen euskarazko argitalpen guztiak itzulpenak dira, gehienak saiakera lanak, eta irakurleen kontzientzia astintzea dute helburu. Pentsamendu kritikoa garatzeko asmo horretan, feminismoaren gaia erdigunera ekarri dute; euskaraz argitaratu diren 11 saiakera lanetatik 7k pentsamendu feminista baitute ardatz.

Bi argitaletxe edo bilduma hauek eta haien atzean gogor lanean aritu diren itzultzaile eta editoreak izan dira erantzule nagusiak azken urteetan emakumeek idatzitako hainbeste saiakera euskaraz izan ditzagun; eta emakumeek idatziak ez ezik, emakume feministek idatziak gehienak ere. Maialen Berasategi itzultzaileak horrelaxe aldarrikatzen du jardun hori: «Behar handia zegoen. Urte asko eman ditugu pentsalari feminista garrantzitsuen obrak geure hizkuntzan irakurri ezinik» Kattalin Minerrek jasotzen duenez (2019).

Hain zuzen ere, jarraian saiakera lanak idazten ez, baizik eta itzultzen aritu direnei erreparatuko diegu. Aurretik esan dugu itzultzaileen kasuan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko arrakala ez dela hain handia izan, baina, oro har, gizonak izan dira urte askoan jardun profesional horretan gehien aritu direnak.



5.Grafikoa: Itzultzaile kopuruak generoaren arabera

Egileen kasuan bezala, lehen begi kolpean alde handia ikusten da grafikoan gizon eta emakumezkoen artean, XXI. mendeko bigarren hamarkadara heltzen garen arte. Hasierako urteetan, saiakera itzulpen jarduna oso murrizta izan zen, baina 80ko hamarkadan dagoeneko emakumezkoak ere ageri dira. Berriro ere, tarte hori handitu egiten da Pentsamenduaren Klasikoak bildumak iraun zuen bitartean, eta hogeit puntuko alde ere ikus daiteke urteren batean. Halaber, egileekin alderatuz, itzultzen ari diren emakumeen kopurua altuagoa da, eta ia urtero egon dira jardunean. Pentsamenduaren Klasikoak bildumaren garaiari dagokionez, aurrera sakonduko dugu gehiago.

1990eko eta 2000ko lehen hamarkadako joera zeharo aldatzen da 2000ko bigarren hamarkadan. Kasu honetan ere, grafikoa irauli egiten da 2013tik aurrera. Urte horretan, gehiago dira itzultzen aritu diren emakumezkoak gizonezkoak baino, eta joera berbera izango da hurrengo urteetan ere. Esan daiteke beraz, azken urte hauetan emakumeak aritu direla gehienbat saiakera euskarara ekartzen. Izan ere, emakume itzultzaileak beti egon izan dira, eta ez dira gutxiago izan, baina plaza publikoa eta jardun prestigiotsuak ez dira beraientzat izan. Pixkanaka aldatzen ari da hori ere.

Aurretik aipatu bezala, idazle feministen testuak euskaratzeko apustua egin da azken urteetan, eta lan horretan ere itzultzaile feministak aritu dira oro har. Argi azaltzen du Irene Arrarats itzultzaileak horren zergatia: «Zernahi testu ondo itzultzeko, bi gauza dira funtsezkoak: itzultzailea profesional ona izatea, eta ahalik eta gehien jakitea testuaren

gaiaz. Beraz, itzuli beharrekoa testu feminista bat bada, hobe itzultzailea ere feminista bada» (Miner, 2019).

Hots, ez da kasualitatea azken urteetan emakume itzultzaileek presentzia hartu izana saiakera itzulpenaren jardun honetan. Beti hor egon badira ere, itzalpean egon izan dira askotan, eta orain pixkanaka literatur itzulpenean hartuz doaz plaza publiko hori, aitortza pertsonal eta kolektiboa erdietsiz: «Emakume itzultzaileen ikusgaitasuna gero eta handiagoa da, hori ziur, eta aitortza ere bai» (Miner, 2019). Feminismoak izan du horretan zeresan handia, hala dio Bego Montorio itzultzaileak: «Feminismoaren kontzientzia zabaltzeak eta kontzientzia horretatik jokatzeko ateak zabaltzeko emakume itzultzaileei» Isabel Etxeberriak jasotzen duenez (2020).

6.8. Pentsamenduaren Klasikoak bildumatik argitalpen solteetara

Orain arte, orokorrean aztertu ditugu euskarara itzuli diren saiakeren inguruko datuak, baina orain bi puntutan sakondu nahiko genuke bereziki: alde batetik, Pentsamenduaren Klasikoak bilduman, eta, bestetik, bilduma handietatik kanpoko jardunean. Halaber, ez ditugu tartean aipatu gabe utzi nahi beste bildumak; Gaiak argitaletxeak, Elhuyarrek eta EHUK bultzatutakoak.

6.8.1 Pentsamenduaren Klasikoak

Pentsamenduaren Klasikoak bilduma 1992an hasi ziren argitaratzen. Elkarte baten ekimena izan zen, eta elkarte horren barruan zeuden hainbat aurrezki kutxa, EHU eta Deustuko Unibertsitatea. Bildumaren helburua izan zen «ideien historia unibertsalean garrantzia izan duten lanak euskaraz jartzea» (Salaburu, 2007) eta 2009an itxiztat eman zuten arte, 131 lan argitaratu zituzten. Ezin uka euskaldunoi egin zigun ekarpenaren balio izugarria.

Kopuruan ez ezik, edukian ere mardula da bilduma. Askotariko gaiak lantzen dituzten liburuak aurki daitezke, baina gehienbat filosofiarekin eta zientziarekin lotura estua dutenak. Kontseiluko presidentearen hitzetan «pentsamendu unibertsalean erpina jo duten obra klasikoak» (Salaburu, 2007) bildu nahi izan zituzten bertan. Halaber, lanak aztertzen jarrita, ikus daiteke «pentsamendu unibertsal» hori mugatua dela; hau da, Mendebaldeko gizon zurien pentsamendua dela oro har bertako lanek biltzen dutena.

Izan ere, ezin uka Mendebaldeko gizartearen pentsamenduan oinarri izan diren izen handi gehienak jasota daudela bilduman, baina ezin uka era berean pentsamendu oso zehatz bati erantzuten diotela. Salaburuk (2007) berak dio, «ez dakigu diren guztiak hala diren, edo badiren hor ageri ez diren beste batzuk ere kanpoan gelditu direnak».

Pentsamenduaren Klasikoak bildumako idazle guztiak dira Mendebaldekoak; ez da harritzekoa kontuan izanik gure gizartea Mendebaldeko pentsamoldearen baitan eraikia izan dela. Gainera, guztiak dira zuriak, ez da arraza minorizatuetoako pentsalarien lanik jasotzen bilduman, eta ia guztiak dira gizonezkoen obrak: emakumezkoen lau lan soilik jasotzen dira bilduman. Emakumeek idatziriko saiakerak 2008 eta 2009an argitaratu zituzten; hots, bildumaren azken urteetan, pentsamendua zabaltzeko ahalegin gisa edo. Beraz, esan beharra dago pentsamenduaren klasikoak direla bai, baina komeniko litzateke zehaztea zein pentsamendurenak, ez baitira pentsamendu unibertsalaren oinarria.

JATORRIZKOEN ARGITALPEN GARAIA		
XX. mende aurrekoak	72	% 54,96
XX. mendekoak	56	% 42,74
XXI. mendekoak	3	% 2,29

7. Taula: Pentsamenduaren Klasikoak; jatorrizkoen argitalpen garaia

Lanen garaiari dagokionez, lanen erdia baino gehiago (% 54,96) XX. mende aurrekoak dira; hau da, testu gehienak ez dira garaikideak. Tartean daude, esaterako Kristo aurrean idatzi ziren 9 filosofia lan. Hala ere, proportzioan gehiago dira XX. mendeko lanak; hots, euskaratu diren lanen % 42,74 idatzi ziren mende bakar batean. Egungo lanen presentzia oso eskasa da, 3 lan besterik ez, baina bilduma 2009an itxi zen, eta hortaz, bederatzi urte bakarrik igaro ziren. Oro har, esan daiteke bildumak antzinako lanak zein lan garaikideak modu orekatu batean biltzen dituela, eta, alde horretatik, uzta zabala dela.

Pentsamenduaren Klasikoak bildumarekin amaitzeko, itzultzaileengan jarri nahi genuen fokua. Bilduma honen argitalpen kopurua izugarria izan zen, eta lan horiek guztiak euskaratzeko beharrezkoa izan zen itzultzaile profesional ugariaren jarduna. Obra hauek itzultzen aritu diren itzultzaileen zerrenda oso zabala da; 66 itzultzaile aritu dira guztira: «itzultzaile desberdinak nahi ziren, horrek bilduma aberastuko zuelakoan» (Salaburu, 2007).

Itzultzaile guztiek, baina, ez dute berdin itzuli. Gehienek (% 62,12) lan bana itzuli dute, eta beste batzuek (% 27,27) bina eta launa lan bitartean. Haatik, izan dira itzultzaile kutunak bilduma honetan, gutxi batzuek lan ugari itzuli baitituzte. Gehien itzuli dutenak izan dira hurrenez hurren; Xabier Mendiguren eta Alberto Gobikagojeaskoa (10), Iñaki Iñurrieta (7), Ibon Uribarri (6), eta Xabier Kintana eta Pello Zabaleta (5). Hortaz, aniztasuna egon da, baina itzulpenak ez dira modu orekatuan banatzen, bost izen koska batzuk gorago baitaude gainerakoen aldean.

Alabaina, aniztasuna ez da erabatekoa; 2008. urtera arte, 6 ziren soilik bilduma honetan itzultzen aritu ziren emakumezkoak, 2009an, bai, beste 12 emakume aritu ziren euskaratzen, baina orotara itzultzaileen % 27,27 bakarrik dira eta lanen % 13,74 itzuli dute. Azken urteetan aldaketa gertatu bazen ere, emakume itzultzaileen presentzia ez da oso handia izan. Beste datu deigarri bat, emakumeek itzuli dituzte emakumeek idatzitako lau testuak, eta egin dituzten itzulpen guztiak garaikideak izan dira; soilik Cristina Lasak itzuli du beste itzultzaile batzuekin batera “klasikoetan klasiko” bat, Aristoteles.

6.8.2 Beste bildumak: Gaiak, Elhuyar eta EHUren ekimenak

Aurretik aipatu dugu Pentsamenduaren Klasikoez gain badirela beste bilduma batzuk, eta ez genituen nahi horiek aipatu gabe utzi. Gaiak argitaletxeak hiru saiakera bilduma argitaratu zituen 1989an hasi eta 2012ra bitartean. Lehen bilduman, Historia eta Gizartean, 12 lan jasotzen dira eta 1989 eta 2008 bitartean argitaratu ziren. Bigarren bilduma Zientzia eta Natura deiturikoa da, eta bertan ere 12 lan daude, 1994 eta 2012 bitartean argitaratuak. Azken bilduma eta guztietan mardulena Pentsamendu Garaikidea bilduma dugu. Bilduma honen baitan 64 lan argitaratu zituzten 1993 eta 2012 bitartean, modu jarraitu eta nahiko sistematiko batean.

Orotara, 88 lan argitaratu ditu Gaiak argitaletxeak, beraz, bere ekarpena ere azpimarratzeko modukoa izan da. Lan horietatik gehienak, 53, ingelesetik itzuli dira, frantsesetik 16, alemanetik 8, eta gaztelaniatik 6. Beraz, aurretik ikusi dugun joera errepikatzen da; ingelesaren nagusitasuna, frantsesarekin eta alemanarekin batera, eta gaztelania ohi baino apalago. Horiez gain, italieratik bi lan itzuli dira, eta galegotik, grekotik eta nederlanderatik lan bana.

EHUK ere baditu beste bi bilduma: ZIO eta Limes. ZIO bilduma 21 lanek osatzen badute ere, 18 dira euskarara eginiko itzulpenak. Lehen lana 2003an argitaratu zuten, eta oraindik ere martxan jarraitzen du bildumak. 2013ra arte urtero argitaratu izan dituzte lanak, baina ordutik aldizkakoak dira argitalpenak. Ia lan guztiak ingelesetik itzuli dira; salbuespena dira frantsesetik eta espainoetik itzuliriko lan bana. Bestetik, Limes bildumak 23 lan biltzen ditu 2004an hasi zenetik gaur egunera bitartekoak. Kasu honetan aldatu egiten da hizkuntzen nagusitasuna. Frantsesetik itzuliak dira lan gehienak (9), eta bigarren latinetik (4), gero dator ingelesa (3), eta azkenik daniera (2), alemana (2), grekoa (2) eta italiara (1). EHUK baditu beste lau saiakera ere argitaratuak, baina bildumetan biltzen ez direnak.

Azkenik, Elhuyar fundazioaren lanak ere badaude. Elhuyarrek argitaratutako 9 lan Islada bildumaren parte dira. Lan horiek 1988 eta 1991 bitartean argitaratu ziren eta gehienak (6) ingelesetik itzuli ziren. Lan bana itzuli zen frantsesetik, gaztelaniatik eta errusieratik. Beste bi lan Z Izpiak bildumaren barruan daude, 2010 eta 2011n argitaratuak eta biak ingelesetik itzuliak. Gainerako 6 lanak ez dira bildumetan sailkatzen, eta 2005-2012 bitartekoak dira. Kasu honetan lanen erdia ingelesetik itzuli da, eta beste erdia grekotik, gaztelaniatik eta portugesez.


Gaiak, Elhuyar eta EHUren artean, beraz, 150 saiakera lan euskaratu dituzte 80ko hamarkadan hasi eta gaur egunera arte. Haien ekimenek uzta oparoa utzi digute gure jakintza euskaraz elikatu ahal izateko, eta dibertsitate handikoa da eskaintza, gainera.

6.8.3 Bilduma handietatik at argitaratu diren lanak⁵

Ikusi dugu saiakeraren itzulpenean bilduma handiek izan dutela pisurik handiena, eta bilduma horiek gehienak erakunde edo elkarteek bultzatuak izan direla. Haatik, bilduma horietatik kanpo ere aritu dira hainbat argitaletxe eta fundazio saiakerak euskaratu eta argitaratzen, eta bereziki azken urte hauetan, haiek hartu dute lekukoa.

⁵ Atal honetan bildu ditugu ekoizpen txikia izan duten argitaletxe edo elkarteak; nolabait aurreko bilduma handietatik berezi ahal izateko. Horregatik, utzi dugu Gaiak hemendik kanpo. Bestalde, atal honetan ageri diren batzuk ez dira argitaletxeak bere horretan, baina argitalpen puntualak egin dituztenez, hemen sartzea ontzat jo dugu.

Bilduma handietatik kanpoko argitalpen kopuruak



6.Grafikoa: Bilduma handietatik kanpoko argitalpen kopuruak urteka

Lehen saiakera lana euskaratu zenetik gaur egunera arte 64 saiakera lan euskaratu eta argitaratu dira bilduma handietatik kanpo. Hain zuzen ere, 80ko hamarkada arte argitaletxe eta fundazioen ekimenez ekarri ziren euskarara testu horiek, nahiz eta oso kopuru baxuan izan. Gerora, bilduma handiak agertzen hasi zirenean, bigarren maila batean geratu ziren; 80ko hamarkadan, 90ekoan eta 2000ko lehen hamarkadan lan bat edo, asko jota bi, argitaratzen ziren bilduma handietatik at, oso kopuru baxua.

Berriro ere, 2000ko bigarren hamarkadan iritsi zen aldaketa. Bilduma batzuek jarraitzen zuten arren, esaterako ZIOk, bilduma handi askoren jarduna eten egin zen orduan, eta garrantzia berreskuratu zuten bestelako argitalpenek saiakeraren itzulpenean. Gorakada izugarria izan zen 2011n, lan batetik zazpira igaro zen urtebetean, eta geroztik, jarraipena eman zaio.

Azken hiru urteetan, bereziki hautematen da joera hori; 20 lan argitaratu zituzten 2017 eta 2019 bitartean. Azkenaldian zabaldu da ustea saiakera sekula ez bezala ekartzen ari dela euskarara, eta egia da hein batean. Azken urteetan ez da saiakera gehiago euskaratu –aldirik oparoenak 90eko hamarkadan eta 2000ko lehen hamarkadan izan ziren–, baina euskaratutako inoiz baino saiakera gehiago argitaratu dituzte argitaletxeek eta fundazioek bilduma handietatik kanpo azken urte gutxi hauetan. Horregatik, izan dugu euskal irakurleok pertzepzio hori.

Izan ere, bilduma handi horietako liburuak ez dira komertzializaziorako pentsatu, liburutegi eta ikastegietara bideratutako argitalpenak izan dira, eta, ondorioz, ez dira hain eskuragarriak izan euskal irakurlearentzat. Salaburuk (2007) berak dio jakin bazekitela bildumarekin «ez zela dirurik irabaziko» eta asmoa zela uztea «hemengo liburutegi garrantzizko gehienetan bilduma bat, bestela nekez aurkituko litzatekeena».

Alabaina, argitaletxeek edo elkarteek euskaratutako lanak esku-eskura izan ditu irakurleak, presentzia handia hartu dute bai komunikabideetan baita azoketan ere –gure komunitate xumean, noski–, eta gaien aldetik ere gertukoagoak zaizkie. Saiakera lanek interes handia piztu dute azkenaldian. Hortik, hainbeste zabaldu den sentazio hori, saiakera inoiz baino biziago dagoela euskal literaturan.

Bestalde, tematika ere aldatu egin da azken urteetan. Ia XX. mende guztian zehar gehien argitaratu diren testuak filosofiarekin eta zientziarekin lotuak izan dira. Baina azken mendean, gehiago izan dira gai politikoak jorratu dituztenak, bereziki, feminismoa ardatz izan dutenak. Lan handia egin dute argitaletxe batzuek periferikoak diren gai horiek euskaratu eta literaturaren erdigunean jartzeko.

Euskaratutako saiakerak argitaratzen argitaletxe eta fundazio ugari aritu dira, oso jardun atomizatua izan da. Hala ere, gehienek ale solteak argitaratu dituzte, gutxi dira jardun horretan modu jarraitu batean aritu direnak.

ARGITALETXEEN ETA FUNDAZIOEN ARGITALPEN KOPURUAK	
Argitaletxea	Kopurua
Katakarak	11
Elkar-Jakin	6
Denonartean	5
Txalaparta	5
Jakin	3
Jakinkizunak	3
Sans Soleil	3
Susa	3
Alberdania-Erein	2
Erein	2
Bagaudia	1
Besatari	1
Consonni	1
Edo!	1
Elkar	1

Emak Bakia Baita- Pamiela	1
Enbolike	1
Euskera Lagunen Elkartea	1
Federiko Engels Fundazioa	1
Hiria	1
Irakur	1
Izarra	1
Jakintza baitha	1
La Primitiva Casa Baroja	1
Meettok	1
Nasa	1
Pamiela	1
Potxo Edizioak	1
Pressbooks	1
Xangorin-Hik hasi	1
Zehaztu gabe	1

8. Taula: Argialetxeen eta fundazioen argitalpen kopuruak

Orotara, 30 argialetxe edo fundazio izan dira 64 lan itzultzen. Esan beharra dago, batzuk ez direla argialetxeak bere horretan; hots, elkarteak dira, esaterako, Xangorin-Hik hasi eta Federiko Engels Fundazioa. Hala ere, hemen sailkatu nahi izan ditugu ekimen pribatuak izan direlako, ez erakundeek bultzaturikoak, eta argitalpen solteak izan direlako. Zerrendan ikus daitezkeen izen horietatik 20k argitalpen bakarra izan dute, beraz, oso jardun puntuala izan da. Bestalde, badago argitalpen bat ez duguna izan zehazterik nork argitaratu zuen.

Badira euskal literatur produkzioko bi izen handi bi liburu argitaratu dituztenak bakoitzak; Erein eta Alberdania eta Erein elkarlanean. Beste lau argialetzek hiruna saiakera argitaratu dituzte: Susa, Jakin, Sans Soleil eta Jakinkizunak. Haatik, lau argialetxeren artean euskaratu dituzte ia atal honetako lanen erdiak (% 42,18); horiek dira Txalaparta, Denonartean, Elkar-Jakin eta Katakarak.

Produkzioaren gailurrean dago Katakarak, 11 lanekin. Argialetxea 2016an sortu zen, eta lau urtean dagoeneko 11 saiakera euskaratu ditu. Benetan zenbaki harrigarriak, kontuan izanik argialetxe txikia dela. Literatura genero honek zentralitate handia du Katakrazen, 2016 eta 2019 bitartean euskarazko 16 lan argitaratu dituzte, eta horietatik 11 izan dira saiakerak. Genero hau nahiko periferikoa izanik ere, irakurleen kontzientzia kritikoa indartzea baitu asmoa. Era berean, lan guztiak euskaratutako testuak izan dira, hortaz, itzultzaileen lana oinarritzkoa da argialetxe honentzat.

JATORRIZKOEN ARGITALPEN GARAIA		
Kristo aurrea	4	% 6,25
XVII. mendea	1	% 1,56
XIX. mendea	4	% 6,25
XX. mendea	33	% 51,56
XXI. mendea	22	% 34,37

9. Taula: Argitaletxeak; jatorrizkoen argitalpen garaia

Bilduma handietatik kanpo argitaratu diren lanen kasuan ere, gehienak XX. mendeko testuak dira (% 51,56), baina XXI. mendeko testuak ere asko dira, heren bat baino gehiago. Kontrara, antzinako testu oso gutxi daude, % 15 baino gutxiago. Hala ere, deigarria da argitalpen hauen kasuan ere Kristo aurreko lanen presentzia, lau lan argitaratu dira garai horretakoak.

Argitaletxeek eta fundazioek argitaratutako lanetan, 55 egileren lanak jasotzen dira. Egile horien artean, 33 dira gizonezkoak (% 60) eta 20 emakumezkoak (% 36,36). Argitalpen hauen kasuan, gizon eta emakumeen arteko aldea baxuagoa da, baina oraindik ere gizonezkoak dira lan gehienegileak, erdia baino gehiago. Bi lanetan, egilea kolektiboa da, beraz, ezin daiteke zehaztu nor dagoen talde horren atzean. Egile gehienegilearen lan bakarra argitaratu da, baina kasu batzuk badira egile beraren bina lan argitaratu direnak, eta baita hiruna ere. Gehien itzulien artean daude hiru lanekin Silvia Federici, Angela Davis eta Platon.

Itzultzaileei dagokienez, orotara 63 itzultzaile aritu dira testuak euskaratzen. Horietatik 40 gizonezkoak dira (% 63,49) eta 23 emakumezkoak (% 36,50). Hiru lanen itzultzailea zehaztu gabe dago. Oraindik ere gizonezkoak gehiago dira, baina lan gehienak itzuli dituztenak emakumezkoa izan dira. Lan bat baino gehiago itzuli dute 12 itzultzailek, eta horietatik 9 dira emakumezkoak. Gehien itzuli duten itzultzaileak hauek izan dira: Danele Sarriugarte (5) eta Imma Errea (4). Hots, emakume itzultzaileak apurtzen ari dira pixkanaka gizonezkoen hegemonia hori.

Bestalde, lan horietatik 10 (% 15,87) taldean itzuli dira; bi edo pertsona gehiagoren artean. Datu honek berriro ere baieztatzen du itzulpengintzan oso errotua dagoela taldean lan egiteko ohitura, eta oso jardun kolektiboa dela. Argitaletxeak edo fundazioak izanik liburu hauek argitaratu dituztenak, haien partetik ere badago

kolektibotasun horrekin esku zabal izateko joera, itzultzaile bakarrera mugatu beharrean. Kolektibotasun hori ere ahalduntzeko bidea izan daiteke bereziki emakumezko itzultzaileentzat; hala da, esaterako, Berasategirentzat: «Lan bakartia izan arren, sareak eta saretxoak dauzkagu, eta elkarri laguntzen diogu» (Miner, 2019).

7. ONDORIOAK

Lehenik eta behin, saiakera itzulpena euskal itzulpenaren jardunaren baitan ulertzea nahiko genuke. Hasieran esan bezala, ezin da praktika isolatu bat bezala ulertu, azken finean, itzulpen sistema osoaren zati bat baita saiakera, eta elkarreaginean dago gainerako itzulpen mota eta praktikekin. Hortik, euskarazko literatur itzulpen jardun orokorraren datuekin alderatzeko beharra. Hain zuzen ere, emaitzak ikusita, esan dezakegu oro har joera berberak erreproduzitzen direla literatur itzulpena osotasunean eta saiakera itzulpena aztertuta.

Alderaketa hori egiteko Manuel Lopez Gaseni eta Iñigo Satrustegiren lanak baliatu ditugu, haiek aztertu baitituzte 1976 eta 2018 bitartean argitaratu diren literatura lan itzuli guztiak. Hots, antzekotasunak ugariak dira. Jatorrizko hizkuntzen kasuan, ingelesaren hegemonia antzematen da kasu guztietan: ingelesetik itzultzen da gehien bat euskarara. Horrekin lotuta dago, AEBen nagusitasuna, bertan argitaratu baitira euskaratu diren lan gehienak, baina badirudi azken urteetan beste herrialde batzuk igoz joan direla, Frantzia esaterako. Gainera, kasu guztietan daude zerrendaren goialdean frantsesa, alemana eta gaztelania jatorrizko hizkuntza ohikoenen artean; eta herrialdeen, kasuan, Ingalaterra, Alemania, Frantzia eta Espainia, baita ere. Izan ere, zifra batzuk gorabehera, literatur potentzia nagusien hegemonia mantentzen da euskal itzulpengintzan. Hizkuntza txikiagoen kasuan, datuak aldakorragoak dira eta hor dagoeneko ezberdintasunak azaleratzen dira lan batetik bestera.

Saiakeraren kasuan, ikusi dugu antzinako testu ugari itzuli direla eta horrek baldintzatu egin du jatorrizko testuen hizkuntzen zerrenda. Izan ere, testu ugari itzuli dira latinetik eta grekotik, eta deigarria da hizkuntza klasikoek halako pisua izatea. Bestetik, espainolaren presentzia baxuagoa da literatur itzulpen orokorrean baino, beste literatura generoetan ohikoagoa izan baita hizkuntza horretatik itzultzea.

Jatorrizko garaiari dagokionez ere joera orokorra oso antzekoa da. Gehien itzuli diren testuak XX. mendekoak izan dira nabarmen, baina, noski, garaiaren arabera aldatzen joan da. Gasenik 2008ra arteko lanak aztertu zituenez, XXI. mendeko lan gutxi daude. Satrustegirenean ordea, gehiago dira garai hartakoak, 2018ra bitarteko lanak aztertu baitzituen. Gure azterketaren kasuan, XXI. mendeko testuak badira nahikotxo.

Ondorioz, agerikoa da literatur itzulpen sistema osoa loturik dagoela, eta elkar eraginean. Guk aztertu duguna sistema horren atal bat soilik izan da, eta ikusi dugu osotasunaren ildoari eusten diola, bere berezitasun eta ñabardurekin, beti ere.

Saiakera itzulpenean jarriko dugu fokua orain. Jardun hau oso gorabeheratsua izan da. Nahiko praktika berria dela esan daiteke, 1913an lan bat itzuli bazen ere, 70eko hamarkadan hasi baitziren modu jarraituago batean itzultzen. Hala ere, 90eko hamarkadan eta mende honetan itzuli da modu sistematikoan, eta orduan pilatu da ekoizpenik handiena. Hala ere, urtez urteko kopuruak oso aldakorak dira, ez baita bilakaera orekaturik izan.

Aipatu dugun moduan, bildumek izan dute pisurik handiena, eta, horren ondorioz, 90eko hamarkadan eta XXI. mende hasieran pilatu da argitalpen kopururik handiena. Urte horietan, argitalpen zifrak oso esanguratsuak izan ziren, kontuan izanik saiakera ez dela literatur sistemaren baitan erdigunean kokatzen den generoa. Azken urteetan, –Pentsamenduaren Klasikoak amaitu zelako, gehienbat– apaldu egin da argitalpen kopurua, baina esango genuke argitaletxeek gero eta garrantzi gehiago ematen dietela genero honetako lanei, eta interes berezi bat sortu dela mota honetako testuak euskaratzeko.

Egile eta itzultzaileak aztertzerakoan, generoaren faktorean sakondu nahi izan dugu, uste baikenuen arrakala egongo zela. Eta ez genbiltzan oker. Bereziki egileen kasuan, aldea izugarria da, emakume egileek ozta-ozta gainditzen dute % 10. Baina, zergatik itzuli dira hain emakume gutxiren saiakera lanak?

Oro har, euskaratu diren saiakera lanak oso egile kanonikoen obrak izan direlako. Pentsalari hegemonikoen lanak izan dira gehienak, eta hegemonia horren barruan emakumeek ia ez dute izan tokirik. Izan ere, saiakera pentsamenduarekin lotu ohi da eta, Iratxe Retolazak dioen bezala, pentsamendua maskulinoztat hartzen da normalki, eta horrek zailtasunak dakartza emakumeek bidea egin dezaten (Feministaldia 2018). Horregatik ematen da halako aldea. Halaber, ikusi ahal izan dugu azken urteetan bereziki, joera hori aldatuz doala eta periferian kokaturiko testuei ateak ireki zaizkiela, eta periferia horretan badaude emakume idazleak.

Itzultzaileekin ere antzeko zerbait gertatu da. Gehiago badira ere itzultzaile emakumezkoak idazleak baino, heren bat baino ez dira. Haatik, ondoriozta dezakegu

urteen joanarekin pixkanaka presentzia hartzen ari direla emakume itzultzaileak, eta itzaleko lana egiteaz gain, ikusgarria den lana ere egiten ari direla. Horren adierazle da azken urteetan gehiago izatea saiakera itzultzen emakumeak gizonak baino.

Lanean zehar bi kasu zehatzetan sakondu dugu gehienbat; Pentsamenduaren Klasikoak bilduman eta bilduma handietatik kanpo egin diren argitalpenetan. Pentsamenduaren Klasikoak bildumak egin duen lana izugarria izan da. Hutsune bat betetzeko beharretik sortu zen, gure jakintzen liburutegia euskaraz osatzeko asmoarekin. Eta bete du asmo hori, 131 lan argitaratu baitituzte. Orain, irakurleok pentsamendua euskaraz garatzeko baliabide mordoa ditugu eskura.

Alabaina, baliabide horiek mugatuak dira eta ez dituzte hutsune guztiak betetzen. Ikusi dugu Pentsamenduaren Klasikoak patroï oso zehatz bati erantzuten diola, eta, oro har, ezaugarri bertsuak dituzten testuak daudela bilduma horretan. Hots, oso lan hegemonikoak jaso dira bilduman, eta aniztasun falta antzematen da.

Hain zuzen ere, aniztasun horren haritik tiraka ibili dira hainbat argitaletxe azken aldian. Ikusi dugu bilduma handietatik kanpoko ekoizpena handitu egin dela urte hauetan, eta ekoizpena handitzearekin batera handitu da saiakerak izan duen harrera eta hartu duen presentzia. Testuen eremua ere zabaldu egin da. Azken finean, argitaletxeek beraiek hauta dezakete zein testu dituzten gustuko edota zein testu eskaini nahi dieten euskal irakurleari, eta horrek testu periferikoagoei ireki die atea: jatorri, arraza, hizkuntza eta pentsamolde ugaritako egileen lanak aurki daitezke gaur egun euskaraz. Esan genezake hortaz, argitaletxeek pentsamendu berrietatik edateko iturria eman digutela euskal irakurleoi.

Amaitzeko, esan genezake saiakeraren itzulpenean bilakaera bat eman dela kopuruan ez ezik, edukian ere. Zenbakietan haziz joan da, hasieran bildumekin, gerora argitaletxeekin –argitaletxeen kopuruen barruan–. Baina bilakaerarik handiena edukian gertatu da. Argitaletxeen eskutik dibertsitate handiagoa lortu da, eta areagotu egin da irakurlearenganako irisgarritasuna. Testu klasikoenetatik testu garaikide eta pentsamendu berritzaileagoetara zabaldu da. Era berean, egile kanoniko eta klasikoetatik bazterrean egon den egileetara ere iritsi da. Beraz, hutsune ezberdinak bete ditu pixkanaka-pixkanaka, eta betetzen jarraituko du ziur aurrerantzean.

Horregatik, interes berezi bat hauteman daiteke azkenaldian irakurleen artean euskarazko saiakerarekiko eta presentzia hartuz doa euskal literatura sistemaren barruan. Liburu dendetan eta azoketan gero eta espazio gehiago hartzen duela ikusi dugu, eta hamaika ahotan entzun ere. Urterik loriatsuenak iragan baziren ere, garai batean izan ez zuen harrera eta tokia du orain, eta indartsu dagoen jarduna dela ikusi ahal izan dugu.

8. BIBLIOGRAFIA

AGIRRE, L., ESKISABEL, I. (2019): *Trikua esnatu da*. Zarautz: Susa.

EROSTARBE, G. (2016ko abenduaren 4a): «Arnasa emakumeari eta euskarari» in *Berria*. <<https://www.berria.eus/paperekoa/1995/038/001/2016-12-04/arnasa-emakumeari-eta-euskarari.htm>> (Azken kontsulta: 2020ko maiatzaren 18an).

ETXEBERRIA, I. (2020): «Zergatik dira direnak emakume itzultzaileak?» in *Uberan*, martxoaren 27an. <<http://www.uberan.eus/?gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/zergatik-dira-direnak-emakume-itzultzaileak>> (Azken kontsulta: 2020ko maiatzaren 18an).

EUSKALTZAINDIA. *Literatura Terminoen Hiztegia*. <https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=saiakera> (Azken kontsulta: 2020ko maiatzaren 18an).

EVEN-ZOHAR, I. (1990): «The Position of Translated Literature within the Literary Polysystem» in *Polysystem Studies*, 11:1, 45-51.

FEMINISTALDIA 2018, «Iratxe Retolaza (EU)» in Vimeo <<https://vimeo.com/314450846>> (Azken kontsulta: 2020ko maiatzaren 18an).

LOPEZ GASENI, M. (2009): «Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)», *Senez: itzulpen aldizkaria*. 37, 299-311.

MINER, K. (2019): «Munduko feminismoa, euskarari emana» in *Uberan*, azaroaren 29an. <<http://uberan.eus/?gatzetan-gordeak/erreportajeak/item/munduko-feminismoa-euskarari-emana>> (Azken kontsulta: 2020ko maiatzaren 18an).

NOR DA NOR datu-basea, <<http://nordanor.eus/>> (Azken kontsulta: 2020ko maiatzaren 18an).

SALABURU, P. (2007): «Pentsamenduaren Klasikoak euskaraz», *Senez: itzulpen aldizkaria*. 32, 157-164.

SATRUSTEGI, I. (2019): *Euskal itzulpenen azterketa kuantitatiboa eta inbentarioa (2008-2018)*. Gradu Amaierako Lana. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea (argitaragabea).

TORREALDAI, J.M. (2020): «Euskal Liburugintza 2017» in *Liburuaren Behatokia*. <<https://www.jakin.eus/liburu-behatokia/2017ko-liburugintza>> (Azken kontsulta: 2020ko maiatzaren 18an).

UGARTE, I. (2019ko abenduaren 7a): «Pentsamenduaren Konkistan» in *Berria*. <<https://www.berria.eus/paperekoa/1936/026/001/2019-12-07/pentsamenduaren-konkistan.htm>> (Azken kontsulta: 2020ko maiatzaren 18an).

9. ERANSKINA: saiakera lanen taula osorik

Izenburua	Egilea (k)	Gene.	J. Urtea	Hizkuntza	Herrialdea	Argitaletxea	Bilduma	I. Urtea	Itzultzailea (k)	Gene.
Adimenaren sorrera haurraren	Jean Piaget	G	1936	Frantsesa	Suitza	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	1997	Elisabete Etxeberria	E
Adimenaren umeak	Hans Moravec	G	1988	Ingelesa	AEB	Gaiak	Pentsamendu Garaikidea	2009	Julen Kaltzada	G
Alderraien gidaria I	Moseh ben Maimon	G	1190	Hebreera	Espainia	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2006	Xabier Kintana	G
Alderraien gidaria II	Moseh ben Maimon	G	1190	Hebreera	Espainia	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2008	Xabier Kintana	G
Alexandro eta Zesar	Plutarko	G	I.mendea	Grekoa	Grezia	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2006	Jesus Maria Arrojeria	G
Amerikako demokrazia I	Alexis de Tocqueville	G	1935	Frantsesa	Frantzia	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	1995	Iñaki Mendiguren	G
Amerikako demokrazia II	Alexis de Tocqueville	G	1935	Frantsesa	Frantzia	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	1996	Iñaki Mendiguren	G
Analak eta Historiak I	Tazito	G	47	Latina	Erroma	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2004	Xabier Amuriza	G
Analak eta Historiak II	Tazito	G	47	Latina	Erroma	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2005	Xabier Amuriza	G
Animalien aurkikuntza: adarbakarraren legendatik etologiaraino I	Herbert Wendt	G	1980	Alemana	Alemania	Gaiak	Zientzia eta Natura	2000	-	-
Animalien aurkikuntza: adarbakarraren legendatik etologiaraino II	Herbert Wendt	G	1980	Alemana	Alemania	Gaiak	Zientzia eta Natura	2000	-	-
Annus mirabilis (1905) emankorreko artikulak eta zenbait idatzi	Albert Einstein	G	1905	Ingelesa	Alemania	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2009	Jose Ramon Etxeberria	G

Antropologia estrukturala	Claude Levi-Strauss	G	1958	Frantsesa	Belgika	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	1996	Patxi Apalategi	G
Antropologo bat Marten	Oliver Sacks	G	1995	Ingelesa	AEB	EHU	ZIO	2003	Xabier Olarra	G
Antzinako Erregimena eta Iraultza	Alexis de Tocqueville	G	1856	Frantsesa	Frantzia	EHU	Limes	2014	Sagrario Barandiaran; Irati Bereau	E/E
Argia munduaren ertzean	Wade Davis	G	1998	Ingelesa	Kanada	EHU	ZIO	2009	Iñaki Iñurrieta	G
Arimaren etorkizuna	Eva Illouz	E	2008	Ingelesa	AEB	Katakrak	-	2019	Danele Sarrugarte	E
Arkeologia eta mintzaira	Colin Renfrew	G	1987	Ingelesa	Erresuma Batua	Gaiak	Pentsamendu Garaikidea	2002	Maria Colera	E
Arkitekturaz	Vitruvio	G	Kristo aurrea	Latina	Erroma	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2005	Ibon Uribarri	G
Arrazoi praktikoaren kritika	Immanuel Kant	G	1788	Alemana	Alemania	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2005	Ibon Uribarri	G
Arrazoimen hutsaren kritika	Immanuel Kant	G	1781	Alemana	Alemania	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	1999	Ibon Uribarri	G
Artea esperientzia gisa	John Dewey	G	1934	Ingelesa	AEB	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2009	Isabel Etxeberria	E
Artelanaren jatorria eta beste	Martin Heidegger	G	1935	Alemana	Alemania	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2004	Pedro Martin Zabaleta	G
Artikulu eta hitzaldien bilduma	Charles Sanders Peirce	G	1931	Ingelesa	AEB	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2005	Ibon Uribarri	G
Artista eta bere garaia	E. Fischer	G	1967	Alemana	Alemania	Hiria	-	2009	Mario Onaindia	G
Artzain komunitate euskalduna: bortuko ingurua I	Sandra Ott	E	1981	Ingelesa	AEB	Gaiak	Historia eta Gizartea	1994	Iñaki Azkune	G
Artzain komunitate euskalduna: bortuko ingurua II	Sandra Ott	E	1981	Ingelesa	AEB	Gaiak	Historia eta Gizartea	1995	Iñaki Azkune	G

Askatasuna etengabeko borroka bat	Angela Davis	E	2015	Ingelesa	AEB	Katakrak	-	2016	Amaia Apalauza; Iñigo Roque; Garazi Ugalde	E/G/E
Askatasunaz, Emakumeen menpekotasuna eta Sozialismoari buruzko kapituluak	John Stuart Miller	G	1859	Ingelesa	Erresuma Batua	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2004	Alberto Gabikagojeaskoa	G
Askatasunetik iheska	Erich Fromm	G	1941	Ingelesa	Alemania	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	1993	Alberto Gabikagojeaskoa	G
Ateismoa kristautasunean	Ernst Bloch	G	1968	Alemana	Alemania	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	1993	Pedro Martin Zabaleta	G
Atlantida: egia ala mitoa?	Igor Rezanov; Dorothy Vitaliano	G/E	-	-	AEB	Gaiak	Zientzia eta Natura	1995	-	-
Azterketa filosofikoak	Ludwig Wittgenstein	G	1953	Alemana	Alemania	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2009	Ibon Uribarri	G
Bai asmo eroa	Francis Crick	G	1990	Ingelesa	AEB	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2008	Iñaki Iñurrieta	G
Bai bizi zoragarria!: Burgess Shale eta historiaren izaera I	Stephen Jay Gould	G	1989	Ingelesa	AEB	Gaiak	Pentsamendu Garaikidea	2000	Jose Ramon Etxebarria	G
Bai bizi zoragarria!: Burgess Shale eta historiaren izaera II	Stephen Jay Gould	G	1989	Ingelesa	AEB	Gaiak	Pentsamendu Garaikidea	2000	Jose Ramon Etxebarria	G
Balea eta erreaktorea	Langdom Winner	G	1986	Ingelesa	AEB	Gaiak	Pentsamendu Garaikidea	2011	Julen Kaltzada	G
Balorazio handia	Joseph Needham	G	1969	Ingelesa	Erresuma Batua	Gaiak	Pentsamendu Garaikidea	2004	-	-
Begirada	Jean-Paul Sartre	G	1943	Frantsesa	Frantzia	Jakin	Irakurgaiak	2017	Juanmari Agurreurreta	G
Berezko irakurpidea	Célestin Freinet	G	1961	Frantsesa	Frantzia	Izarra	Irakasleen liburutegia	1972	Txillardegia	G

Bertrand Russellen azken iritziak	Bertrand Russell	G	-	Ingelesa	Erresuma Batua	Herri Gogoa	Irakur	1970	Txillardegi	G
Beti Galizan	Alfonso Rodriguez Castelao	G	1944	Galegoa	Galizia	Susa	-	1986	Bego Montorio	E
Bi epaile frantziarrentzako gutuna	Guilles Perrault	G	1999	Frantsesa	Frantzia	Txalaparta	Amaieur	2007	Zorion Zamakola	G
Bi kulturak	C.P. Snow	G	1959	Ingelesa	Erresuma Batua	Elhuyar	-	2007	Iñaki Irazabalbeitia	G
Big Bangaren bila I	John Gribbin	G	1986	Ingelesa	Erresuma Batua	Gaiak	Pentsamendu Garaikidea	1997	Joan Ignazio Abrisketa; Iñaki Azkune	G/G
Big Bangaren bila II	John Gribbin	G	1986	Ingelesa	Erresuma Batua	Gaiak	Pentsamendu Garaikidea	1997	Joan Ignazio Abrisketa; Iñaki Azkune	G/G
Bigarren sexua	Simone de Beauvoir	E	1949	Frantsesa	Frantzia	Elkar; Jakin	Eskafandra	2019	Irene Arrarats	E
Bihozberatasunaz	Luzio Aneo Seneka	G	-	Latina	Erroma	EHU	Limes	2011	Igor Yarza; Elena Zalakain	G/E
Bikario Savoiarraren fede-aitortza	Jean-Jacques Rousseau	G	1762	Frantsesa	Herbehereak	EHU	Limes	2009	Esteban Antxustegi	G
Biziarekin, adimenarekin eta unibertsoarekin aurrez aurre	Eduardo Punset	G	2004	Gaztelania	Espainia	Gaiak	Zientzia eta Natura	2012	Alberto Gabikagojeaskoa; Julen Kaltzada; Xabier Montorio	G/G/G
Biziaren izaera	Conrad H. Waddington	G	1972	Ingelesa	Erresuma Batua	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2009	Iñaki Iñurrieta	G
Biziaren jatorria	Aleksandr I. Oparin	G	1924	Errusiera	Errusia	Elhuyar	Islada	1988	Kepa Altonaga; Mainer Etxaide	G/E
Bizitzaren laburtasunaz	Luzio Aneo Seneka	G	I. mende a	Latina	Erroma	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	1993	Imanol Unzurrunzaga	G
Bizitzaren sentimendu tragikoaz	Miguel de Unamuno	G	1913	Gaztelania	Euskal Herria	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	1994	Xabier Kintana	G

Borondatezko morrontzari buruzko mintzaldia	Étienne de La Boétie	G	1576	Frantsesa	Frantzia	EHU	Limes	2011	Juan Kruz Igerabide	G
Caliban eta sorgina	Silvia Federici	E	2004	Ingelesa	AEB	Elkar; Jakin	Eskafandra	2017	Aitor Arruti; Eduarne Lazkano	G/E
Charles Darwin: autobiografia eta gutun hautatuak	Charles Darwin	G	1887	Ingelesa	Erresuma Batua	Gaiak	Pentsamendu Garaikidea	2006	Joan Ignazio Abrisketa	G
Darwin eta diseinu inteligentea	Francisco J. Ayala	G	2007	Gaztelania	Espainia	Gaiak	Pentsamendu Garaikidea	2010	Julen kaltzada	G
Delituez eta zigorrez	Cesare Beccaria	G	1764	Italiera	Italia	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	1999	Juan Martin Elexpuru	G
Demokraziaren etorkizuna	Norberto Bobbio	G	1984	Italiera	Italia	Klasikoak	Pentsamenduaren Klasikoak	2008	Koldo Biguri	G
Denbora, historia eta artearen inguruko testuak	Walter Benjamin	G	-	Alemana	Alemania	Sans Soleil	Txinpartak	2015	Mikel Babiano; Amaia Donés; Teresa Pradera; Danele Sarriugarte; Iñaki Segurola	G/E/E/ E/G
Denboraren geziak	Richard Morris	G	1984	Ingelesa	AEB	Elhuyar	Islada	1990	Maria Jesus Gurrutxaga; Arantxa Pardo	E/E
Denboraren historia laburra	Stephen Hawkin	G	1988	Ingelesa	Erresuma Batua	Gaiak	Pentsamendu Garaikidea	1995	Joan Ignazio Abrisketa; Iñaki Gonzalez; Alfontso Martinez; Alizia Stürtze	G/G/G/ /E
Descartesen hutsegitea	Antonio Damasio	G	1994	Ingelesa	AEB	EHU	ZIO	2012	Isabel Etxeberria	E
Desobedientzia zibila	David Henry Thoreau	G	1849	Ingelesa	AEB	Potxo edizioak	-	2009	Edu Lartanguren	G
Diapsalmata	Soren Kierkegaard	G	1843	Daniera	Danimarka	EHU	Limes	2007	Juan Mari Mendizabal	G
